

Gipuzkoako Parrokoen %77ak -horien artean 14 Artzipreestetatik 11- kontsentsu zabal bat iritsita beren kezka agertzen dute idatzi hau sinatuz. Gipuzkoako elizaren ordezkariak bat eginda diote Jose Ignazio Munilla “ez dela inondik ere pertsona egokia Elizbarrutiaren Gotzain-eginkizuna betetzeko”.

Gipuzkoako parrokoen gehiengo zabal batek idatzi bat sinatu du Jose Ignazio Munilla Gotzain berriaren izendapenarekin bere desadostasuna adieraziz.

la hilabete da Jose Ignazio Munilla Donostiako Gotzain izendatu zutela, eta gipuzkoako parroko gehienek adierazpen bat sinatu dute, Gipuzkoako Elizaren ordezkari berriaren izendapenarekin beren desadostasuna agertuz.

110 Parrokoetatik 85ek azaldu dute beren “samina eta kezka”, Gotzain berria izendatzerakoan izan den azpi-asmoa eta erabili den prozedura dela eta.

Guztira, 131 izan dira sinatzaileak, aktiboan dauden gipuzkoar apaizen gehiengo zabala; elizbarrutiko apaizak, nahiz apaiz erlijiosoak dira manifestuarekin bat egin dutenak.

Desadostasuna eta gaitzespena

Gipuzkoako Elizbarrutikoan pastoral arduraren apaiz eta erlijiosoek beren “desadostasuna eta gaitzespena” azaldu dute izendapenarekin eta saminez “deitoratzen” dute erabaki hau hartzean Elizbarrutiko Elizaren eta bere erakundearen sentipena kontuan ez hartu izana. Gainera diote Jose Ignazio Munilla Gotzainaren ibilbidea “Elizbarrutiko lan-ildoetatik urruti zegoela eta ez zuela halakoekin bat egiten”.

Pastoral hautuekin bat egitea

Apaizek diote “bat egiten dutela” orain arte Elizbarrutian egituratu diren pastoral-ildoekin eta eliz estiloarekin, eta beren borondatea eta konpromisoa agertzen dute “urte hauetan egindako hautapen pastoralei eutsi” eta horien arabera jarraitzeko. Gainera, ziur daude ondoan izango dutela aurrerantzean ere beren kristau fedearekin leial diren “sinestadun askoren lankidetzatza”.

